

EGILE BERRIENTZAKO KOMIKIEN II. LEHIAKETA - GLOBALIZAZIOA ETA LAN ESKUBIDEAK

La Fundación Paz y Solidaridad / Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak EGILE BERRIENTZAKO KOMIKIEN II. LEHIAKETA - GLOBALIZAZIOA ETA GIZA ESKUBIDEAK 2010 izenekoarako deialdia egin du jarraian ageri diren oinarrien arabera, objektibotasuneko, publizitateko eta lehiaketa askeko printzipioak betetze aldera.

OINARRIAK:

A. PARTE HARTZAILEAK:

A1.- Euskadin bizi diren edo jaio diren eta 2010ko abenduaren 31n 16 urte dituzten eta 35 urte baino gutxiago dituzten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

A2.- Egile edo egile talde bakoitzak 1 lan aurkeztu ahal izango du. Teknika askea izango da; istorio osoak, jatorrizkoak eta argitaragabeak, beste lehiaketaren batean saritu gabeak eta, gutxienez, 2 orrialdetan eta, gehienez, 8 orrialdetan egindakoak aurkeztu beharko dira zuri-beltzean edo koloretan, eta alde bakarrean. Lanen gidoiak euskarazkoak edo gaztelaniazkoak izan daitezke.

A3.- Lanaren edukiak lehiaketaren izenburuko gaiarekin lotura izan beharko du: "Globalizazioa eta Giza Eskubideak". Emakumeek testuinguru horren baitan bizi duten egoera islatzen duten lanak bereziki balioetsiko dira. Euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dira.

B. BALDINTZAK:

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten gazteek arau hauek bete beharko dituzte:

- a) Lehiaketara aurkeztu beharreko komikiak atzealdean idatzita izan beharko dute lanaren izenburua eta orrialde kopurua. Orrialde bakoitzaren formatua DIN A 3 erakoa izango da (29,7 cm-ko zabalera eta 42 cm-ko altuera). Goialdean 2 cm-ko marjina zuriz utzi beharko da eta 1,5 cm-ko marjina behetik, ezkerretik eta eskuinetik.
- b) Komikiekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 1. NANaren, egoiliar-txartelaren edo errolda-txartelaren fotokopia, A Oinarrian xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.
 2. Istoriotxoaren izenburua.
 3. Egilearen izen-abizenak.
 4. Harremanetarako telefonoa.

Lanak hobeto baloratu ahal izateko interesekoa izan daitekeen beste edozein dokumentazio entregatzea hautazkoa izango da.

C.- IZEN EMATEAK

C.1.- Eskatutako dokumentazioa Correosen bulegoetan aurkeztu beharko da eta horren gastuak parte-hartzaileak hartu beharko ditu bere gain. Gutun-azalean "komikien lehiaketa" erreferentzia idatzi beharko da eta helbide honetara bidali beharko da: Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna elkartearen egoitza. Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbo, Bizkaia.

C.2.- Eskaerak aurkezteko epea 2010ko maiatzaren 3an hasi eta **Azaroaren 1an** amaituko da (bi egunak barne).

C.3.- **Azaroaren 8an**, Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak bere webgunean esekiko du lehiaketarako onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda. Horren ondoren, **Azaroaren 15ra** arteko epea zabalduko du erreklamazioak egin ahal izateko. **Azaroaren 22an** argitaratuko dute lehen aipatutako tokian lehiaketarako onartutakoen behin betiko zerrenda.

D.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak izendatuko du eta 4 lagunek osatuko dute. Horietako bi Fundación Paz y Solidaridad - Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioko Hezkuntza taldeko bi kide izango dira eta gainerako biak Euskadiko CC.OOren Konfederazio Gobernuko ordezkariak izango dira.

E.- EPAIA

Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna elkarrekin parte-hartzaile guztiei jakinaraziko die epaia. Horretarako, zerrenda webgunean jarriko du eta irabazleei telefonoz dei egingo die. Epaimahaiak aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela erabakitzen badu, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Erabakia apelaezina izango da.

F.- SARIA

Abenduaren 15an entregatuko dituzte sariak eta diplomak CC.OOk Bizkaian duen egoitzan.

Aurkeztutako lan guztien artean, epaimahaiak lan batzuk aukeratuko ditu horiekin bilduma gisa "Globalizazioa eta Giza Eskubideak" izeneko liburua argitaratzeko.

Aukeratutako komiki guztien artean, bi lan aukeratuko dituzte eta horientzako sariak **1.000** eta **500 €**-koak izango dira hurrenez hurren. Zenbateko horietatik, indarrean dagoen zerga arloko legeriaren arabera dagozkien atxikipenak kendu beharko dira.

G.- FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD EUSKADI-BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOAREN BETEBEHARRAK

G1.- Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak hauek betetzeko konpromisoa hartuko du bere gain:

- a) Sarien esleipenaren zein horien erakustaldiaren inguruko publizitate mailako hedapena egitea jarduerak hedatzeko erabili ohi dituen bitartekoak erabiliz.
- b) Egokitzen jotako lanekin liburuak argitaratzea; artista parte-hartzaile bakoitzari horren ale bat entregatuko dio.

G2.- G.1 b) puntuak xedatutakoa betetze aldera, Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak, publizitateko materialen editore moduan, bere gain izango du entregatzen zaizkion testuak zabaltzeko, mozteko edo aldatzeko eskubidea lan hori prestatzeko.

H.- AUKERATUTAKO LANEN, FINALISTEN ETA SARIDUNEN EGILEEN BETEBEHARRAK

- Aukeratutako egileek, finalistek eta saridunek egokitzen jotako eran erabili ahal izango dute komikia baldin eta Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak 2010. urtean egile berrientzat antolatutako Komikien II. Lehiaketan lortutako kalifikazioa zehazten badute.

I.- BESTE XEDAPEN BATZUK

I1.- Oinarri hauetan aurrez ikusi gabeko edozein gertaera edo horren interpretazioaren inguruko edozein zalantza Euskadi-Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren irizpideen arabera ebaztuko du hark izendatutako epaimahaiak.

I2.- Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauetan bildutako xedapen guztiak onartzea dakar berekin.

